

FUNTSEZKO JARDUERAK

Erreferentziako teknologia duten eskularruen arrakastarako funtsezko jarduerak produkzio-prozesu eraginkor batean eta produktuaren etengabeko berrikuntzan oinarritzen dira. Gure lanaren funtsa eskularruak ekoiztean datza. Prozesu horretan gure diseinu-taldeak proposatutako diseinua lortuko da

Gure enpresa manufacturaren epizentroa izango da, eta bertan produktuari bizia emango zaio ekoizpen-prozesu baten bidez. Eskularruak, erreferentziako teknologia aurreratuarekin, zehaztasunez fabrikatuko dira, funtzionaltasuna eta kalitatea izateko. Produktu horiek osatu ondoren, beste enpresa batzuei emango zaizkie, kanpoko garraio-enpresa batekin lankidetzan, banaketa eraginkorra eta egokia ziurtatuz.

Aldi berean, gure diseinu-taldeak etengabe hobetuko du produktua. Eskularruen bertsio hobetuak eta aurreratuagoak egingo dituzte, merkatuaren behar eta itxaropen aldakorretara egokituz.

Ekoizpen eraginkorran eta diseinuaren etengabeko hobekuntzan lan egitearen ondorioz, merkatuan dugun posizioa indartuko da ,gero eta aurreratuagoak eta enpresa bezeroen eskaera espezifikotara egokituak diren produktuak eskainduko ditugulako. Laburbilduz baita etengabe eboluzionatzeko ere, erreferentziatzeko teknologia-industrian lider bihurtzeko lan egingo dugu.